



**ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

## AKTA

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2009ko apirilaren 7a, asteartea

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:00

**BUKATZEKO ORDUA:** 19:45

### **BERTARATUAK:**

#### **Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

#### **Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

#### **Idazkari-kontu hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

### **AZTERGAI ZERRENDAA**

1. Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Ortzaika auzoan N-634 errepide ingurua urbanizatzeko proiektua exekutzeko obren kontratazioa.
2. Adjudikatzea, egoki bada, Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontzesio administratiboko erregimenean emateko kontratazioa.
3. Onartzea, egoki bada, Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, arautuko duena Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatuaren zerbitzuak emateko kontratazioa, kontzesio administratiboko erregimenean.
4. Onartzea, egoki bada, Baldintza Administratibo Partikularren Orria, Orioko hondartzetan (Antilla eta Oribarzar) zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzua prozedura irekiz eta lehiaketa bidez kontratatzeko.



5. Onartzea, egoki bada Urola Kostako Udal Elkartearen eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalen arteko lankidetzahitzarmena, Urteta zabortegia itxi, zigilatu eta etorkizunean mantentze lanak egiteko estaldura fondoaren nahikotasuna bermatzeko, eta ahalmena ematea alkateari, hitzarmen hori Orioko Udalaren izenean sinatzeko.
6. Onartzea, egoki bada, Urola Kostako Udal Elkartearen eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalen arteko lankidetzahitzarmena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hondakin urbanoen gestioa dela eta ezarritako tarifetan ekarpenak nola egin finkatzeko.
7. Onartzea, egoki bada, 2010eko Orioko jaieguna izendatzea.
8. Onartzea, egoki bada, EUDEL-en Adierazpen Institutuzionala, udal demokraziaren 30. urteurrena dela eta.
9. Onartzea, egoki bada, Udalbiltzaren Adierazpena eta Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, 2009ko apirilaren 12an ospatzen den Aberri Eguna dela eta.

## ESAN-EGINAK

### **1.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ORTZAIKA AUZOAN N-634 ERREPIDE INGURUA URBANIZATZEKO PROIEKTUA EXEKUTATZEKO OBREN KONTRATAZIOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Orioko Ortzaika auzoan N-634 errepide ingurua urbanizatzeko proiektuaren exekuzioaren adjudikazioa lehiaketa bidez, prozedura ireki eta urgentziatzeko tramitazioz egiteko iragarkia argitaratu zuen Udalak 2009ko martxoaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (41. zenbakia).

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira:

- 1.- EGUZKI ERAIKUNTZAK, SL
- 2.- UTE CONSTRUCCIONES DONOSTI, SA ETA URBANIZACIONES IRUÑA, SA
- 3.- ALTUNA Y URIA, SA

Kontratazio Mahaiak, udal arkitektoak 2009ko martxoaren 30ean emandako txosten teknikoa aintzat hartuz, honako hau proposatzen du: Orioko Ortzaika auzoan N-634 errepide ingurua urbanizatzeko proiektua exekutatzeko kontratua EGUZKI ERAIKUNTZAK SL sozietate merkantilari adjudikatzea, bere proposamena izan delako puntuaziorik altuena lortu duena Baldintza Administratibo Partikularren orriko 16. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI**



**ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

**1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2009ko martxoaren 23an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

**2.- BEHIN-BEHINEKOZ ADJUDIKATZEA** Orioko Ortzaika auzoan N-634 errepide ingurua urbanizatzeko proiektua txosten teknikoaren arabera exekutatzeko kontratua EGUZKI ERAKUNTZAK SL sozietate merkantilari; obren adjudikazio prezioa 639.305,83 eurokoa da, gehi 102.288,93 euro, %16ko BEZari dagozkionak (Gastu Orokorrak eta Mozkin Industrialak barne).

Behin-behineko adjudikazio hau **BEHIN BETIKO ADJUDIKAZIO** bihurtuko da, behin adjudikaziodunak aurkezten duenean dagokion dokumentazioa, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (31.965,29 eurokoa) ematen duenean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki honen iragarkia argitaratu eta hamabost laneguneko epean.

**3.- ITZULTZEA** lehiaketa honetan parte hartu duten lehiatzaileek aurkeztutako behin-behineko fidantzak.

**4.- JAKINARAZTEA** erabaki hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege errekurtsioak azalduz.

Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako boto eman duela, beren ustez obraren kontratazioa ALTUNA Y URIA, SA entitate merkantilari adjudikatu behar zaiolako, enpresa horrek apustu sendoagoa egiten duelako enplegua sustatzearen alde.

## **2.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KANPINEKO TABERNA ETA SUPERMERKATU ZERBITZUAK KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN EMATEKO KONTRATAZIOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Kontratazio Mahaiak aipatutako deialdia hutsik uzteko proposamena egin du, zehaztutako epean ez delako batere lizitatzailerik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**HUTSIK UZTEA** Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontzesio administratiboko erregimenean emateko kontratazioaren deialdia, lizitatzailerik aurkeztu ez delako.

## **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA, ARAUTUKO DUENA ORIOKO UDAL KANPINEKO**



**TABERNA ETA SUPERMERKATUAREN ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATAZIOA, KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Lasa (EA), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

**ONARTZEA** Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, arautuko duena Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatuaren zerbitzuak emateko kontratazioa, kontzesio administratiboko erregimenean.

Emandako botoa azaltzeko, Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du kontrako botoa eman duela, bi arrazoiengatik: batetik, ez dagoelako ados Udalak zerbitzua emateko ezarri duen ustiaketa-kanonarekin, gehiegizkoa iruditzen zaiolako, eta, bestetik, uste duelako Udalak ez diola tratu zuzen eta egokia eman aurreko kontzesiodunari.

**4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA, ORIOKO HONDARTZETAN (ANTILLA ETA ORIBARZAR) ZAINZTA, SALBAMENDU ETA LAGUNTZA ZERBITZUA ETA ORIOKO UDAL KANPINEKO IGERILEKUAREN ZAINZTA ETA BOTIKIN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIZ ETA LEHIAKETA BIDEZ KONTRATATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2009ko apirilaren 6an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**]:

**ONARTZEA** Baldintza Administratibo Partikularren Orria, Orioko hondartzetan (Antilla eta Oribarzar) zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzua prozedura irekiz eta lehiaketa bidez kontratatzeke.

**5.- ONARTZEA, EGOKI BADA UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ETA AIA, GETARIA, ORIO, ZARAUTZ ETA ZUMAIKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ZARAUZKO URTETA ZABORTEGIA ITXI, ZIGILATU ETA ETORKIZUNEAN MANTENTZE LANAK EGITEKO ESTALDURA FONDOAREN**



**NAHIKOTASUNA BERMATZEKO, ETA AHALMENA EMATEA ALKATEARI, HITZARMEN HORI ORIOKO UDALAREN IZENEAN SINATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2009ko apirilaren 2an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**; abstentzio-botoak: Iturain (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

**1.- ONARTZEA** Urola Kostako Udal Elkartearen eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalen arteko lankidetzaz-hitzarmena, Zarauzko Urteta zaborteia itxi, zigilatu eta etorkizunean mantentze-lanak egiteko estaldura fondoaren nahikotasuna bermatzeko.

**2.- AHALMENA EMATEA** alkateari lankidetzaz-hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

**6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ETA AIA, GETARIA, ORIO, ZARAUTZ ETA ZUMAIKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZAZ-HITZARMENA, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAK HONDAKIN URBANOEN GESTIOA DELA ETA EZARRITAKO TARIFETAN EKARPENAK NOLA EGIN FINKATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2009ko apirilaren 2an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**1.- ONARTZEA** Urola Kostako Udal Elkartearen eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalen arteko lankidetzaz-hitzarmena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hondakin urbanoen gestioa dela eta ezarritako tarifetan ekarpenak nola egin finkatzeko.

**2.- AHALMENA EMATEA** alkateari lankidetzaz-hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.



Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko Leire Zinkunegi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, hondakin urbanoen gestio integral baten alde daudelako.

## **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2010EKO ORIOKO JAIEGUNA IZENDATZEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2009ko apirilaren 2an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**PROPOSATZEA** Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2010ean ekainaren 29a izan dadin, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuperatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailaren martxoaren 17ko 65/2009 Dekretuaren 2.3 artikuluan ezarritakoa betez; dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2010. urterako.

## **8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUDELEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, UDAL DEMOKRAZIAREN 30. URTEURRENA DELA ETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; EUDELen adierazpen instituzional horrek honela dio, hitzez hitz:

### *UDAL DEMOKRAZIAREN XXX. URTEURRENA DELA ETA EUDELEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA*

*Orain dela hogeita hamar urte aro berri bat hasi zen. 1979ko apirilaren 3an lehenengo udal hauteskunde demokratikoak ospatu ziren, testuinguru politiko berri baten barruan. Alde batetik, demokrazia suspertu zen, eta gainera, inflexio puntu bat izan zen gure Udalen antolakuntzan, politikoki eta juridikoki.*

*Hogeita hamar urte pasa dira dagoeneko. Denbora horretan aldaketa politiko, sozial, ekonomiko eta teknologiko garrantzitsuak bizi izan ditugu, eta horietara egokitu gara. Gure arteko desberdintasunak gorabehera, ilusio bateratuak eduki ditugu. Ilusio horiekin, garai berri hori inauguratu zuten boluntarioak gaur egun ezagutzen ditugun Udalak eraikitzen hasi zinen.*

*Ibilbide hori hasi zutenei omenaldia egiteko garaia da. Gure Alkate eta Zinegotziei beraien lana, ahalegina eta sakrifizioa eskertu behar diegu, Udal demokratikoen garapen eta sendotzea ekarri dutelako eta erakundea*



*herritarrengana hurbildu dutelako. Horiei guztiei esker, gure Udalak oso baloratuta daude eta azken urteetan asko eboluzionatu dute, herritarren bizikaltatea hobetzeko. Beren lanari esker, tokiko politikan boluntario gisa lan egin dutenen indarrari esker, erronka handiak gainditzeko gai izan gara eta indarberrituta irten gara beti.*

*Tokiko demokraziak hogeita hamar urte bete ditu. Eta hiru hamarkada horietako ibilbideak indarra eman behar digu, are indar eta konfiantza gehiagoz, aro berri honen erronkak gure gain hartzeko, baita 1979tik arrastaka dakartzagun horiek ere. Horregatik guztiagatik, EUDELen, data hori gogoratu nahi dugu, puntu hauetan oinarrituz:*

- Bakea. Gure udalerrietan bizitzaren eta lanaren kontrako mehatxua den terrorismoa erazte da gure helburu nagusia. Horregatik, terrorismoaren mehatxupearan lan egiten duten alkate eta zinegotziak omendu nahi ditugu, baita horregatik bizitza galdu dutenak ere.*
- Tokiko autonomia, subsidiaritatea eta finantza nahikotasuna. Helburu horiek, era berean, hogeita hamar urte bete dituzte. Herrialdearen arkitektura instituzionalean Udalerriak integratzea, eta Udalerrien eskumen eta gaitasun horien titulartasuna aitortu eta ezartzea, gizartetik hain gertu egoteagatik. Hori da gure etengabeko erronka. Udalerrien Legea onartzea lan horretan erabakiorra izango da.*
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna. Berdintasun arloko politikak martxan jartzea da emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde aurrera egiteko modu bakarra. Erakundeek arlo horretan hartuko duten konpromisoarekin soilik, XXI. mendeko arazo sozial nagusietako bat gainditzeko lortuko dugu, emakumeen aurkako indarkeria.*
- Berrikuntza. Gure herritarrenganako zerbitzua hobetzea da udalen esentzia. Aro digitalean gaude, eta zerbitzu aurreratua eskaini behar dugu, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokienez, gardentasuna eta parte hartzea bultzatu eta herritar guztientzako zerbitzu bateratu baten alde egin behar dugu, bizi diren lekuan bizi direla ere.*
- Gobernantza. Udalerriak gero eta egoera konplikatuagoetara egokitu behar dira. Horretarako, beharrezkoa da gobernatzeko moduan eragile, mota eta maila askodun gobernu erlazionalaren ereduak sartzea.*
- Interkulturalitatea eta Gizarteratzea. Berdintasunaren aldeko borrokan, halaber, herritar guztien eskubideen alde egin behar dugu, diren lekukoak direla ere, eta errespetuan elkarbizitzeko eta elkarrengatik modua bilatu behar dugu.*
- Europa eraikitzea. Lotura politiko, sozial eta kultural horren partaide gara, eta tokiko gobernuetan Europako herritarren alde lan egiteko konpromisoa hartu dugu, elkartasuna eta eraginkortasuna nagusi diren eremu batean.*



- *Erakundeen arteko lankidetzeta. Pieza garrantzitsua da zerbitzu publikoen kudeaketa eta eraginkortasuna, beraz, gure herrialdea gainerako erakundeekin batera eraikitzen parte hartu nahi dugu. Lankidetzeta hori beharrezkoa dela uste dugu, planteatutako proposamen guztiak lortzeko, sare horretan eman beharreko nahitaezko urrats bezala.*
- *Krisi ekonomikoa gainditzea. Une honetan hori da lehentasuna. Garai honetako esperientziaz eta ezagutzaz baliatu behar dugu, eta hori herritarrekin zuzenean elkarbizitza ematen digu. Horiek dira egoera horretatik indarberrituta ateratzeko gakoak.*
- *Aitortza. Hogeita hamargarren urtebetetze honetan, gure egitekoa da udalerrri guztietan lana, ahalegina eta sakrifizioa inbertitzen duten Alkate eta Zinegotzi guztiak omentzea. Kasu gehienetan, bokazio hutsagatik eta herriarekiko maitasunagatik, ordainsaririk jaso gabe. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu udal mailako politikaren boluntario guztiei.*

*Horregatik guztiagatik, Euskal Udalerrien Elkarteak, EUDELeK, aitorten hau onartu eta Udal guztiei gonbidapena egin die, egoki ikusten dituzten akordioen bidez, horrekin bat egin dezaten.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Lasa (EA) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BOST ABSTENTZIO BOTO**]:

**ONARTZEA** EUDELeK udal demokraziaren 30. urteurrena dela-eta prestatutako Adierazpen Instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du abstentzio botoa eman duela bi arrazoiengatik: batetik, Alderdien Legeak ukatu egiten duelako Euskal Herriaren subiranotasuna eta, bestetik, oraindik onartu gabe dagoelako Euskadiko Udalen Legea.

Talde mistoko Joseba Goiburuk hartzen du hitza eta adierazten du bat egiten duela erabat Bixente Lasak esandakoarekin eta honako hau gehitzen du: bere talde politikoa bat datorrela adierazpen instituzionalaren puntu guztiekin, bakearen aipamena egiten duen puntuarekin izan ezik, zeren eta puntu horretan jasotzen denaren arabera, balirudike terroristak beti berberak direla.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du adierazpen instituzional hori lotsagarria dela, ez dituelako jasotzen hainbat eta hainbat kontu; besteak beste, herritarren parte-hartzeari dagozkionak. Ondorioz, dokumentu hutsala iruditzen zaiola esaten du.





**9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBILTZAREN ADIERAZPENA ETA KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, 2009KO APIRILAREN 12AN OSPATZEN DEN ABERRI EGUNA DELA ETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Aberri Eguna dela-eta adostutako adierazpenak honela dio, hitzez hitz:

*2009ko ABERRI EGUNA*

*1931.ena geroztik ospatzen dugu abertzale garenok Aberri Eguna. Urte guzti horietan, denok dakizkigun gorabeherak bizi izan ditugu, baina, guztien gaineratik, Aberri Eguna Euskaidunon Eguna izan da, gure Nazioaren aldarrikapenaren eguna, ospakizunetarako, bai, baina baita Euskal Herriaren eraikuntzarekin gure konpromisoa biziberritu eta adierazteko balio diguna.*

*Udalbiltza Euskal Herriko udalerrri eta udal-hautetsiek osatutako Nazio Erakundeak aurten beteko ditu hamar urte. Hamar urte horietan agerian utzi du egitura politiko eta administratibo zatikatzailen gaineratik badagoela edozein euskal lurraldetan berezkoa den erakunde bat, herrigintzan tradizio handiko, politikoki eragilea eta sarean lana eginez mugak gainditzeko gai dena.*

*Udalbiltzaren hamar urtetako bideak oinarri tinkoak izan ditu:*

- Euskal Herria nazio bat da, kontzientzia Nazionalaren jabe den komunitate historiko, linguistiko eta kulturala.*
- Euskal Nazioa gure Herria osatzen duten zazpi Lurralde Historikoek osatzen dute, "gorputza" lurraldetasunak ematen dion bezala, Nazioaren "arima" bertan bizi garen herritar orok.*
- Nazio bat garenez, gainontzeko nazioek duten neurri berdinean dagokigu, geuri ere, gure etorkizuna demokratikoki erabakitzeko eskubidea.*
- Euskal Nazio Erakuntza euskal-hiritar guztion borondate librearen gainean bakarrik gauzatu dezakegu.*

*Hau da, hain zuzen, aurtengo Aberri Egunerako deialdi honen bidez, berriz ere, ozen adierazi nahi duguna: euskal gizartearen aniztasuna aitortuz, giza eskubide guztien defentsa sutsua eginez, benetako demokraziaren bidean jarraiki, Europako Herri zaharrenetarikoa garen neurrian, euskal herritar guztion artean Euskal Nazioaren Eraikuntzan etengabeko pausoak emateko eskubidea gurea dela.*

*Horrela, Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko bidean, Orioko Udalak honako ebazpena egiten du:*



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2009/04/07

- *Euskal herritarrei, eta bereziki Orioko herritarrei, bai Euskal Herria eraikitzen, baita pairatzen dugun gatazka politikoa era demokratikoan gainditzeko ere, dinamiketan inplika daitezzen deia egin nahi diegu.*
- *Euskal Herriko eragile politikoei, sozialei eta sindikalei arduraz jabetzeko, eta alderdikeriak baztertu eta herri gisa, Euskal Herri osoari begira, jokatzeko deia egin nahi diegu.*
- *Orioko herritarrei Aberri Egunean parte har dezaten gonbitea egin nahi diegu.*
- *Mozio honen bidez onartutakoa herritarrei zein komunikabideei jakinaraziko zaie.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

**ONARTZEA** 2009ko apirilaren 12an ospatuko den Aberri Eguna dela-eta adostutako Adierazpena, goian jasota dagoen bezalaxe.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**